

## ARAUDIA UDA 2019 KANPAINA

### JARDUERAK GALTZARABORDA ETA FANDERIAN

Ikastaro batean baino gehiagotan izena eman nahi dutenek hasieratik egin beharko dute, dagokion zentzoko harreran. Ikastaroa izen ematea egitean ordainduko da txartelaren bidez edo eskudirutan.

Pertsona bakoitzak gehienez 3 ikasle apuntatzeko aukera izango du (familia unitate bereko kideak badira gehiago izan daitezke). Plazak emateko inskripzio hurrenkerari zorrote jarraituko diogu.

UDA kanpainan izena emana izateak ez du urrian hasten diren ikastaroetarako plaza gordetzeko eskubiderik ematen.

Izena emateko epea: maiatzaren 3tik aurrera (ostirala) abonatuak direnentzat. Maiatzaren 8an (asteazkena) izen-emate librea irekiko da.

Abonatuak ez diren pertsonak NANaren fotokopia edo familia-liburuaren fotokopia ekarri beharko dute.

Udan Fanderiako igerilekuko ura ez da klimatizatzen.

### **BAJAK IKASTAROETAN**

Ikastaroan baja eman nahi duen pertsonak ikastaroa egiten duen kiroldegiko harreran horren berri eman beharko du ikastaroa hasi baino 15 egun lehenago. Horretarako, bidezko inprimakia bete eta harreran aurkeztu beharko du.

Epe hori pasa eta gero, ez da bajarik onartuko eta ez da itzuliko ikastaroaren kopurua. Ordaindutako kopurua soilik itzuliko zaio jarduera egiteko ezintasuna duela adierazten duen agiri medikua aurkezten duenari.

Dena den, ikastaroa hasi ondoren bertan baja emanez gero, ez da ordaindutako dirurik itzuliko.

### **IRRISTAILUAK - PATINAK**

**Ekipamendua:** kirolerako arropa erosoak ekarri behar dute. Parte-hartzaileek beren irristailuak eraman behar dituzte.

## **IGERIKETA ESKOLA**

Igeriketa ikastarorako alta berri guztietarako beharrezkoa da maila proba egitea, 2015 urtean jaiotakoentzat izan ezik.

**Ekipamendua:** kirolerako arropa erosoia ekarri behar dute. Horretaz gain, igerilekuan bainatzeko bainujantzia, txankletak eta bainurako txanoa ekarri behar dituzte.

## **TENISA eta PADELA**

**Ekipamendua:** kirolerako arropa erosoia ekarri behar dute eta ikasle bakoitzak bere erraketa edo pala ekarri behar du.

Komeni da jarduera hori burutzen duten haurrak eguzkitako kremarekin babestea, zenbait jarduera aire zabalean egiten baitira. Parte-hartzaileek hamaiketako eta ur botila bat eraman behar dituzte.

## **ZUMBA KIDS**

**Ekipamendua:** kirolerako arropa erosoia ekarri behar dute.

**ANTOLAKETA ARRAZOIAK DIRELA ETA, ORDUTEGIAK ALDATU AHAL  
IZANGO DIRA.**

**Behar hainbeste pertsonak izena ematen ez badu, jarduera bertan behera geratuko da.**